

Apirileko feria eusko-katalana



Ezkerrean, *Sevillako feria* (1856) azokako irudirik zaharrenetakoa, Andrés Cortés y Aguilarrek egina. Obraren hiru bertsio daude: bata Sevillako udaletxean, bigarrena Bilboko Arte Eder Museoan eta azkena Hijos de Ybarra S.A. enpresaren eskuetan. Alboan, José María Ybarra bilbotarra, Apirileko feriaren eta aipatutako enpresaren sortzailea.

SEVILLA, 1846KO ABUZTUAREN 25A. Hiriko bi enpresa-gizonek proposamen bat bidali zioten udalbatzari, urtero, apirilean, hiru eguneko ganadu azoka bat antolatze-ko. Alejandro Aguado, Montelirioseko kondea zen orduan Sevillako alkatea, eta proposamena atzera bota zuen hasieran, hiritik hurbil beste bi ganadu azoka garrantzitsu bazeudela argudiatuta: Mairena de Alcorrekoa eta San Lucar la Mayorrekoa, jatorria Erdi Aroan zutenak biak. Hala ere, 1847ko martxoaren 5ean Elisabet II.a Espainiako erreginak feria pribilegioa eman zion Sevillari. Orduan, udalbatzak aurreko urtean jasotako proposamena egokia zela erabaki zuen, besteak beste, proiektuak tokiko abeltzain eta nekazari askoren babesa zuelako, bultzatzaileak bertakoak ez ziren arren; enpresa-gizonetako bat, Narciso Bonaplata (1807-1869), katalana zen, eta bestea, Jose María de Ybarra (1816-1878), Euskal Herrikoa.

Bartzelonan jaioa, Bonaplata ehungintzan hasi zen lanean. Desamortizatutako komentu zaharrak merke erosi eta fabrikak Kataluniatik kanpo zabaldu zituen 1830eko hamarkadan. 1840an iritsi zen Sevillara, burdina eta kobre fabrika berri bat aitzakia, eta han bizi izan zen hil artean.

José María de Ybarra, aldiz, bilbotarra zen, José Antonio Ybarra Bizkaiko Labe Garaien eta Banco de Bilbaoren sortzailearen hirugarren semea. Aitak, semea Bilbo inguruan bor-borrean zeuden mugimendu politikoetatik aldendu nahian, José María kanpora bidali zuen 1841ean: Baionara, Bartzelonara, Valentziara, Cádizera... 1843an Sevillara iritsi zen eta han geratzea erabaki zuen. Itsasontzi enpresa bat sortu zuen lehenik, Sevilla eta Bilbo arteko merkataritza bidea egingo zuena. Ondoren, oraindik martxan dagoen Ybarra elikagai enpresa sortu zuen.

Bonaplata eta Ybarraren ekimena erreginaren baimena jaso eta hurrengo hilabeteen gauzatu zen: ganadu azoka 1847ko apirilaren 18an inauguratu zuten. Apirileko lehen feria hartan hemeretzi etxola jarri zituzten jan-edanetarako. Baina dibertsio-gunearen arrakastak eraginda, 1850ean azoka bitan banatu zuten: ganadua batetik, festa bestetik. Gaur egun ganadu askorik ez, eta jantzi flamenkoak, sevillanak, manzanilla.... dira nagusi. Andaluziar esentziaren paradigmatzat iragartzen den Sevillako feria, katalan batek eta euskal herritar batek sortu zuten. ■



Arrastoak

Sic semper tyrannis



MARKO JUNIO BRUTORi egotzi ohi zaio *Sic semper tyrannis* (Honela beti tiranoei) esaldi ezaguna; Julio Zesar hil zuenean bota omen zuen erromatar senatariak. Hamazortzi mende geroago, Abraham Lincoln Ford antzokian tiro egin eta ihes egiten saiatu zenean, John Wilkes Boothek ere esaldia oihukatu zuen, eszenari dramatikotasuna emateko

asmoz edo; izan ere, Booth aktore eza-guna zen hiltzaile are ezagunagoa bihurtu baino lehen. 1996an Oklahoma Cityko eraikin federalaren aurkako erasoan 168 pertsona hil ziren. Timothy McVeigh egilea atxilotu zutenean (argazkian) Lincolnren irudia zeukan elastikoa zeraman soinean, eta irudia- ren azpian esaldia: *Sic semper tyrannis*. ■